



MERCIER

MALINES 'KO CARDINALA JAUNA
BELGIAKO APEZPIKU GEIHENA



BELGIAKO APEZPIKUEN IARDUKIA

ETZAIELA ZILLEGI ALEMANIARREI

ANGOAK NAI ETA NAI EZ URRUNERAT ERAMATEA.

MALINAS 'EN,

Azaroaren 7, 1916.

Gudukan aitzindari direnak baidaramazkite egunero gure erritar ogengabeak pillaka Alemaniarat buruz. Ezinbertzeko lanetarat ertsatu nai dituzte antxe.

Urrillaren emeretzian igorri genion buruzagi orotakoari gure iardukia ezetzka. Gutunak gero eginik bidali genition ere Bruseles 'en bertze gobernuen ordezkariari (*representantes*), zein baitire, Akli Sainduena (*Santa Sede*), Españiarrena, Legez Baturatuena (*Estados Unidos*) eta Holandiarrena. Buruzagiak, baiño, iardetsi zigun "ezta zeren." Gure iardukiaren egun artan, azpiratu gaituen eskuak, xedetan zituen bakarrik lana utzirik zeudenak; gaurgero naasika nai ditu bizkor diren gizon

guziak; orgatara ertsiki daramazkite iñork eztaki norat, aspikotu artalde batzuen ariora.

ZORTZI EUNETIK AMABI EUNERA EGUNERO.

Baikenuen susmoa geldiaziak bazirela guneka Tournai 'en, Gant 'en, Alost 'en, baino ez ginakien zer itzpidez.

Urrillaren 24 'tik Azaroaren 2 'etara, bildu zituzten Mons 'eko eskualdean, Quivrain 'en, Saint-Ghislain 'en, Jemappes 'en saretarat egiñik laüetan ogei eta bederatzia eun gizon egunean Biar eta etzi botako dute sarea Nevilles 'ko auzoetan. Berri emaile gutunen bat, gaixtakeri ori erakusteko, ará emen :—

“ Guduka buruzagiak aginduz, gizonezko guziak amazapi urtetik goiti, agertu bearko dire Saindu-Paul Nivelles 'ko zabaltean, Azaroaren zortzian 1916 'garrenean goizeko zortzitan (B.O.), edo bederatzitan (G.O.). Bekarte eskuan bakoitzak berberaren ageri gutuna, baita ere erriko Iguraiena (Meldeamt).

“ Iñori etzaio zillegi ekartzea, eskutarako iauntzi puskak baizik. Bere burutik agertzen

eztena eramana izanen da naigabetanik Ale-
maniarat, gañera emain diote ixun-ordea (*multa*)
gogorra eta ziegan luzaro edukiren.

“ Elizakoak, sendagiñak, itzarartekoak (*abo-
gados*) eta irakasleak eztire etorri bear.

“ Auzapezak izanen dute bere gaiñ eta
zorduru (*responsable*) agindu unen burutan
emaitea. Erakutsi biezote bereala, erri banaka
bizi direnei.”

Ogei eta lau ordu epea agindu ori agertu-
ez-geroz-arresietan, eta eramana izateko.

Belgian egiteko auzolanen estakuruz, es-
kubidedunak nai izan zituen bildu lanbiderik
gabe zeuden langille guzien izen lerroak, eta
ortarako adiña eskatu zituen erriko ziñutziei.

Ziñez, ooreari begiratzuz etzioten aurreratu
geienek.

ALEMANIAKO ANDIZURENAK (*autoridad*)

AUTSI DU BERRIZ BERE ITZEMANA.

Iru bider neurri oriek arturik gobernari
orotakoak, eman digu kaldia eta kozka ori.

Agorrillaren amabostgarrenean 1916, ateri zen lenbiziko agindua. Ziega (*prisión*) eta izun-ordea (*multa*) lanera itzultzen etziren lanutzi guzieri. Alarik ere lanak bear ziren egin Belgian, eta Belgiar ziñutziak bazuten eskubidea lanera-gabeen yuzkatzeko.

Bigarren aginduak (Maiatzaren bitan ateri zena, 1916), ertsitzen du Alemaniar buruzagien eskuetara lanak eskaintzeko zuzena. Nork nai eragiten badu bertzela, orotarako aitzindarien baiarik gabe, emanen zaio bi urtez ziega, eta ogei eun marke ixun saria edo bahikuntza.

Aginpen orren ariora, Belgiar auzitegiak zuten eskua eta aala bigurtu da alemaniar auzitegien aldera. Irugarren aginduak, gero Maiatzaren amairugarrenean 1916, kemena emaiten die buruzagiei edo gudukarako aitzindariei eta lekuetako iguraiei lanutziak eramateko gogorrez, langaia den tokietara. Ok naigabetanikako lanak zirelarik, Belgiako lurretan ordea. Nai eta naiezko lanak eztire gaurgero Belgian, baiño Alemanian eta Alemanien irabazpenerako.

Neurri gogor okei zerbait bidezko itxurapen emaitagatik, erran zuen eskua dunak, naiz Belgian naiz Alemanian ageri diren Alemaniar egunkarietan, bazituela estakuruak : lanutziak guzitarako bakiaren galbide zirelakotz, eta zama aidurra laguntza erriazkoaren (*oficial*) eginbidetan daudenentzat.

Urrillaren amaseian igorri genion gutuna au zuzentzalle orotakoari eta maitegiburuari erranez :—

Zuk badakizu aski, landetako bakiaz eztugula beldurtzekorik, eta balitz zer edo zer galbide urranik, gogoz laguntzera elduko litzazkitzueke onbidezko aalak eta erriazko komenak.

Lanutzia eztatza erri eginbideazkoen elkar laguntzari, zuen ontasunatik etzaie eldu ianaririk.

Orotako aitzindariak iardestean eztakarzkit bi estakuru orietatik bat ere; baño, dio, non naitik etorrikako elmena lanik gabeko iendeentzat denez geroz, aidurra dela gure ontasunari buruz, eta zuzen autetsi bear duenak arindu gogo dituela zamak. Ortaz landara,

dio ere “ geldirik luzaro daudenak galdu egiten dutela beren lankotasuna, eta bakiaren orduan langintzarako deusgai lirezkela.”

ZIÑEZ, ZEIN DEN ALEMANIARREN XEDEA.

Baziren, egiaz, bertze bideak arintzeko gure ontasunen zama : ekendu balitzkigute, erraiteko, gudukarako zergak orai untan milla milloietara eldu zaizkunak, doazilarikan txituz berrogei milloi illabetero, aldera gelditzen balitzaizkigu bedere iakiak eta tresnak, milla eta milloi aunitz egiten dutenak gure izana osoki iabaldu arteo. . . .

Baziren bertze bideak gure langillen trebetasuna iraunarazteko, utzi balute Belgia langintza beren tresneriekin, utzi balizkigute gaiak eta eskuz-eratu Belgiatik Alemaniarat eramane gabe. Eztituzte eramane ez arrobietara, ez kisu labetara gure lan gabeak, aintrebe diren gizaseme ok geiago eta geiago ikastekotan. . . .

Au da egia uts utsa. Bidaltzen dituzten gizasemeak, egiten dituzte Alemaniar gudu gizon. Gureak betetzen du alemaniar bakoitzaren ut-

*sunea, ioan dadientzatori guduқа tokira. Orre-
gatik igortzen diegu berri ori bazter eta iri
oroetara, iakin detzatentzat gutaz kopuruak.
Laureun milla langille daude lanik gabe, berek
naiezik; aunitzetan bahikuntzei esker, sartu
zitzaigun gobernuari esker. Umiek, andrek,
gurasoek baitaramate ixil ixila aal dezaketen
arabera, marmariorik gabe, beren doain zori-
gastokoa, agurtuz beti oroen ongibakia.
Sorterriko elkartasunak emaiten du bear-
gunetan elmena, bearrik, estu esturik: xuurr-
xuurr bizirik eta ausarki emanetz, irioituz,
lagunt dezakete azkenekotan daudenei, gero
eta geiago lotuak, elkarren negar samurretan,
baño gotorki igurikiz gure nekeen urentsa.*

IKUSTEKO NAZKAGARRIAK.

Soldadoak multzoka sarturik negarrez
illun dauden etxetara, ekentzen tiozte umeak
gurasoei, senarrak andreei, aitamek aurrei;
xutik daude bayoneta izkilluan gora, atekak
etsirik, eztitezen etorri amak eta andreak
berenei azken agurra ematera; bildutzen
dituzte lotuak berrogeika eta berrogeitamarka,

eta gogorrez sartuarazirik orgetara. Sugurdia an dago zai, orgak bete bezain sarri, iaunskill batek egiten du itza besoz, aurrera! Ikusazue bertze belgiar pilla, milla gizon menpertasunari emanak, zeren-eta iakin gabe, itzatuak neke guzietik gogorrenera, eriotza lekat, (Neke Gutunkariaren arabera), urrutira igorriak. Ezlakikete non dauden, ezlakikete noiz arteo. Bakar bakarrik badakite lanaren okoizpena izanen dela etsaiarentzat. Batzuetik ardietsituzte itzeman agiriak, balakatuz, meatxatuz, agiri oriek "gogo onezkoak" erran eta.

Alde batetik, ziñez lerrokatzen dituztela alfer daudenak, baño bertzetik ere agitz aunitz, (Mons 'eko eskualdean laugarrenak guzietik), gizonak dire beñere alferrik egon eztirenak, edozeñ lanbidezkoak, arakiñak, okiñak, ardo-kinak, tximistargiñak, nekazariak. Orobatsu biltzen dituzte irakastetxetako gazteak, ikaste bikaineakoak, ikaste orotegikoak (*universidades*).

ALEMANIARREK ITZEMAN ZUTENA.

Alarik ere, Alemaniako agintarien andizurena geienik duten biek itzeman ziguten ben benetan

beren buruketz, gure erritarrek naitara iraunen zutela. Amberes 'ek iausti egin eta biamoniaman, guziak galde egiten zuten erotuki, zer agituko ote zitzaien belgiarrei armak erabiltzeko gai zirenei, edo adiñ ortara etorri zitakenei bahikuntza azkendu baño len. Baron von Huene 'k, guduka agintari Amberes 'en zenak eskua eman zidan ekartzeko atsegiña guraso ain estutuei. Baño erran merrana edatu zelarik Amberes 'en, eta Lieja 'n, eta Namur 'en, eta Charleroi 'en eramana izan zirela gazte batzuk nai eta naiez Alemani-arat buruz, otoitztu nion agintari von Huene 'ri, onez onenean eman zizadan idatziz, izketan emanikako iardukiak. Ihardetsi zatan susmoak etzutela funtsarik, eta ezpaika ari gabe igorri zatan idazkiz ager-itza, gero irakurri zutena urrengo igandean Urrillaren 18 emezortzian 1914 'garren, erriko eliz nagusi guzietan Amberes 'ko barrutean (*provincia*): “Ezteza-tela beldurrik izan, gazteak igorriak izanen direnez Alemani-arat, ez ango guduka lerroetara, ez nai eta naiezko lanetara.”

Baron von der Goltz eldu bezain sarri

agintari orotarakotz, ioan nintzaion eske baietzu zizadan errialde guzietarako eta eperik epaitu gabe, von Huene 'k emanikako berme itzak Amberes 'ko eskualde barruterako. Oroen agintari ark bahitu zuen bere eskuetan nere eskarioa, ikertu zezaken geldiro. Biaramunian onetsi zuen, nere baitarat etortzea, erraiteko niri, onartzen zuela, eta emaiten zion indarra bere ordoki lagunen aitzinean eta nere idazkari berexi enean. Erritar guziei eskua emana izanen ziela, onetsirik bat bedera naitara, zuzenbidearen arabera.

Urrillaren amaseian oroitzara erakarri nion Baron von Bissing 'eri, aitzinekoak eman zidan itza, eta bururatzen nuen erranez :
 “ Zure goikotasunak ezautuko du zen nekarri zaiden, zein aidurra zitzaidaken Belgiar askazi eta senideen begietan erantzunbidea, agitzen balitzaizkit utsak eta ustelak zure baitan dituzten sinesteak, nigatik, (nik otoitzturik), zure baitan ezarri dituztenak.”

Agintari orotakoak erantzun zidan :—
 “ Emaiten badiegu lanbidea Alemanian, emen alferrik daudenei, gudukan bi urtez ari

garenezgero, ezta berdin gazteekin, gudukarako gai direnekin; ok bearrez menpeko daude. Neurri au ezta bidatua gudukaritzaren ariora, bai baño elkararteko azturaz eta diruen goraberatik.”

i Agian gizon bear bezalakoaren itzak eztirau urte batetik bertzera, eta urraturik baitagoke edozein alakoiru ttipi baten antzo ! . . .

i Agian 1914'garren urtean emanikako agerbideak ezpalitu alde egin itzez itz gudurako lanak eta ezinbertzez-ko nekeak ! . . .

Itz batez, agian Belgiar langilleak ezpalu aldizkatzen alemaniar langillea, errazago ioateko guduka ordokirat !

DEIA GUZTIEN ABURUARI.

Guk ardien artzai ok, biotz estutuaz daku-sagunok gure ardiak indar gogordunen atzaparretan, dakigularik aulduak legozkela oiturei eta religioneari buruz aizkatu dauzkigutelako eta banatu, guk ikusi ditugunok orrenbeste etxe nekez eta ikaran eta latz, izutuak, etxaldeak urraturik edo ondatu bearrak; edatzen eta zabaltzen ditugu gure besoak siñesmenik

dutenetara edo eztutenetara elkar itzartuen eremuetan, bai ta ere etsaien lurretan zerbait edo zerbait begirune gizakunde-az dutenetara.

Lavigerie Cardinalak asi zuenian bere saila atxemangoaren aurke, Leo XIII Papak onedasirik arlo urá erran zion : “ Mende aburua baita beiñ baño geiago nagusi : aburua berotu bear baita. Aburu orrek gayenduko du.”

i Jainkoaren begiruneak argitu betza edozein gizontasuna duenen itza, mintzoa eta egakia (*pluma*). Betorkigu gure Belgiar aterpe apalaren ingurura, ekentzeko European sartu zaigun atxemangoa.

Gizakundearen gogargiak garaitu beza maltzurkeri guziatik, eta bego atxikia gogorki eta ziñez Andoni Sainduaren itza argiarı : “ Oorea guzien gañetik daigun andietsi !— *Nihil præferendum honestati.*

*Belgiar Apezpikuen Izenean, Izen-Itzatua,**

D. J. CARDINALE MERCIER,
Malines 'ko Apezpiku geiena.

* Brujesko Apezpikuakin itz-egiteko biderik eztugu izan.

